

**UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK**  
**GAZTELANIA ATZERRITAR HIZKUNTZA (GAH) ETA BIGARREN**  
**HIZKUNTZA (GH2) IRAKASLEGOARENTZAKO FORMAKUNTZA**  
**IKASTAROA (10. ED.)**

**INFORMAZIO OROKORRA**

---

**IKASTURTEA:** 2023/2024

**ARLOA:** Arteak eta Humanitateak

**KREDITUAK:** 12,00 ECTS kreditu

**MATRIKULA TASA:** 960,00 € (asegurua 4,00 €)

**ARDURADUN AKADEMIKOA:** Ainhoa Gómez-Pintado

**AURKEZPENA**

---

Prestakuntza osagarri honek GAH (Gaztelania Atzerritar Hizkuntza) edo GH2 (Gaztelania Bigarren Hizkuntza) irakasteko behar diren alderdi guztien ikuspegi orokorra ematen du, ikuspegi teoriko eta praktikoa batetik, orain, edo etorkizunean, gaztelaniako irakasle izan nahi dutenen lana bideratzeko eta errazteko. Horretarako, alor bakoitzeko aditu onenak ditugu, GAH/GH2 irakaskuntzaren ikuspegi eguneratua eskainiko dutenak. Ikastaro honek bi modulutan banatuta (bata zein bestea edo biak egin daitezke), GAH irakasteko beharrezkoak diren alderdien ikuspegi orokorra ematen du.

**ZURE BILA GABILTZA**

---

Bihur zaitez GAHko irakasle! Lanbidean hasi edo sakondu nahi baduzu, hauxe da zure ikastaroa! Metodologia praktikoa eta parte hartzaile baten bidez, profesional gisa hobetzeko aukera emango dizuten ezagutza didaktikoak, linguistikoak eta kulturalak deskubritu edo eguneratu ahal izango dituzu. Saio bakoitzean hizlariak gai bat aurkeztuko du eta taldekako eta banakako zereginak egingo dira, eduki horietara egokituta. Gainera, modulu bakoitza eginez gero, gehienez 2 ECTS kredituko aitortpena lor liteke UPV/EHUren graduatuko ikasketetan. Zain gaituzu!

## **IRTEERA PROFESIONALAK**

---

Eskolak eta akademiak. - Gobernu kanpoko erakundeak eta elkarteak. Espainiatik kanpo: - Cervantes Institutua: Cervantes Institutuak, deialdi publiko bidez, gaztelania atzerriko hizkuntza irakasle lanpostuak eskaintzen ditu. Deialdiak urtean behin egin ohi dira. - Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak gaztelania irakasle gisa atzerriko hainbat programatan lan egiteko aukera eskaintzen du. Atal elebidunetan lan egiteko postuen eskaintza, Estatu Batuetan edo Kanadan irakasle bisitari gisa, edo Elkarrizketa Laguntzaile gisa. - Irakurleagoak: Espainiako Kanpo Harremanetako eta Lankidetzako Ministerioak eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak, atzerriko unibertsitateetan, gaztelania atzerriko hizkuntza irakasle moduan, eskolak emateko aukera eskaintzen dute, hizkuntza eta kultura hispaniarreko programak indartzeko asmoz. - Eskolak eta akademiak.

## **BALDINTZAK**

---

Unibertsitateko ikaslea izatea edo graduatua. Bertakoak ez diren ikasleei espainierazko C1 maila eskatzen zaie.

## **IRAKASKUNTZA**

---

**HASIERA ETA AMAIERA DATA:** 2024/03/01-etik 2024/11/30-era

**EMATEKO TOKIA:** birtuala

**HIZKUNTZA:** gaztelania

## **INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA**

---

**HELBIDEA:** Arabako Campuseko Errektoreordetza. Beheko solairua (Nazioarteko Harremanetako Bulegoa). Izarduy komandantea, 2. 01006 Vitoria-Gasteiz

**TELEFONOA:** +34 945 013356

**POSTA ELEKTRONIKOA:** cursosidiomas@ehu.eus

(\*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.